

## PRENTSA OHARRA

# 2025eko BAIONAKO BESTEN AFITXA Botoetara!

## 2025eko otsailaren 7tik (ostirala) 21era (ostirala)

Lehiaketa baten bidez, Baiona Hiriak eta Baionako Bestetako Hiritik Kanpoko Batzordeak 5 egile hautatu dituzte 2025eko Bestetako afitxaren sorkuntza grafikorako: Julie Alenda, Éric Califano, Claude Davancens, Gwladys Morey eta Mathilda Tardieu. Beraien sorkuntza prentsaren aitzinean aurkeztuko dute Herriko Etxeko Saloi Nagusian, otsailaren 7an, ostiralarekin. Sorkuntza horiek linean edo erakusgai izanen dira Turismo Bulegoan eta didam-en otsailaren 21era (ostirala) arte. Publikoaren bozak soilik linean 2025eko otsailaren 7an, ostiral eguerdian irekiko dituzte, eta 2025eko Baionako Bestetako afitxa ofiziala bihurtuko den proposamen bakarra atxikiteza ahalbidetuko dute. Eraitza otsailaren 27an, ostegunarekin.

Heldu diren Baionako Bestetarako proposatu diren bostetatik afitxa bakarra atxikitzeke galdetzen diote publikoari. Aurten, internet bidez soilik ematen ahalko da botoa fetes.de.bayonne.fr webgunean otsailaren 7ko (ostirala) 12:00etatik otsailaren 21eko (ostirala) 00:00etara. Bost proposamenak Turismo Bulegoan (Euskaldunen plazan) egonen dira ikusgai, hilabetearen 8tik (larunbata) eta bozkak hetsi arte (astelehenetik larunbatera 09:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 17:30era egonen da zabalik), baita Didam, Lesseps-eko kaian ere (asteartetik igandera 13:30etik 18:30era egonen da zabalik).

**Publikoaren botoak azken emaitzen % 60a osatuko du, eta gainerateko % 40ak Hiritik Kanpoko Batzordearen botoak izanen dira.** Kontuan izan behar da gutienez 16 urte izan behar direla bozkatzeko.

Afitxa lehiaketako irabazlearen izena **2025eko otsailaren 27an, ostegunean, ezagutaraziko da, Jean-René Etchegaray Baionako auzapezak emanen duen prentsaurrekoan.** Hiriko sare sozialetan zabalduko da aldi berean.

Lehiaketa honi lotutako prozedura guziaz urtero bezala egiten da, uxera baten babesean. Saridunari 4.000 euroko ordainsaria emanen zaio (BEZ barne); gainerateko lau sortzaileei 500 euroko ordainsaria emanen zaie (BEZ barne).

### **2025erako lehiaren 5 hautagaiak..**

**Julie Alenda**-ren ustez, Baionako Bestak bere bizitzaren parte dira tikitatik, tradizio horrekin hazi da, eta urtero gustatzen zaio hiria animatzen duen giro paregabe hori berreskuratzea bertan. Lehiaketa honetan parte hartzea agerikoa zen harentzat. Baionako bizilaguna eta Bestetako giro paregabeak eta energiak liluraturik, Bestetako funtsezko hiru atal nabarmendu

nahi izan ditu diseinatzaile grafikoak: familia aldea, bandak eta ohitura. Besta hauek guztiok elkartzeko momentua dira. Baionako Bestak, «*batez ere familia eta lagunekin partekatutako oroitzapen ahaztezinak dira. Hiri osoa giro paregabean ospatzeko, kantatzeko eta dantzatzeko elkartzen den garaia da*».

**Éric Califano**, grafista trebatua, denbora luzez aritu da ekitaldietako bolondres lanetan, eta, beraz, ohorea da harentzat lehiaketa honetan parte hartzea. Jatorriz Toulon-ekoak dio, bestaren balioak eta herri ohituen kultura, giroarena, kirolarena, elkarbizitzarena, eta errespetuarena berreskuratzen dituela Baionan. Bere sorkuntzan, emazte aurpegiaren eta eta zezenketa irudikatzearen inguruan bildu nahi izan ditu Baiona eta Baionako Bestei erreferentzia egiten dieten xehetasun anitz: gastronomia, arkitektura, besta eta bandak, eta Leon erregeari keinu bat, koroa batez sinbolizatua.

Emaizta lehegarrria iruditzen zaio, hainbeste maite duen Besten aztoramena bezala. Ohol-kirol zale honentzat, hiriko ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa eta betiko bestazalea ere bai, pentsaezina zen egunen batean lehiaketa honetarako zorterik ez probatzea.

**Claude Davancens** 2 aldiz parte harte hartu zuen jadanik (2017an eta 2018an). Edizio honetarako afitxa bat proposatzen du 50 eta 60ko hamarkadetan inspiratutakoa, oso grafikoa, minimalista, baina baita umoretsua ere, publikoarengan eragin handia izatea espero du. Horrela laburbiltzen du bere proposamena: "*Baionako Bestak buruan ditugu!*".

**Gwladys Morey** ilustratzailea da, Euskal Herrian bizi eta lan egiten du. Estienne eta Gobelins ikastetxeetatik pasatzean, sintesirako eta ikus-jokoetarako zaletasuna sortzen da, eta dantza eta jendetza endemikoa bere gai gogokoenen parte dira aspalditik. Adopziozko baionar horrek lehiaketan parte hartu zuen 2022an, eta aurtengo ediziorako Bestetako protagonista nagusien sintesi alai bat egin nahi izan du: hiria estaltzen duten gorria eta zuria, bestak beren aniztasun handian eta hiriko giltzak. Musikak eta bandak ere, bestetan zehar erritmoa ematen dutenak, eta horien inguruan antolatu ditu pertsonaia guziak.

Bestetan duen eskarmentua da armairuan uztailari zentzuz itxoiten dioten zapiak, eguerdian Leon erregeren abestia penten dute oraindik bi aste berantago kantatzen dela, karriketan segitzen diren bandak eta erraldoiak, partekatutako edalontziak, aurkitzen diren ohiturak.

**Mathilda Tardieu**, Tardieu ezizenez ezaguna, ardoan aritu zen 4 urtez, grafismoan eta sorkuntza artistikoan birmoldatu aitzinetik. Bizikidetzaren marraztea gustatzen zaio. Azken hamar urteotan bestetan ohikoa izan den landetarrak bizikidetzaren partekatzea eta ohitura irudikatu nahi izan ditu bere konposizioan. Afitxa hori selfie gisa eraikia da, eta modernotasun ikuspegia du, gazteei zuzendutako mezu gisa. Lagun talde bat, tartean musikari bat, Errobi ertzean bildu eta argazkia ateratzen ari da. Eszena honek Besten bi alderdi erakusten ditu artistarentzat: birtopaketak eta laguntasuna. Urrunean, jendetza, Leon erregea eta bere gortea, giltzak, baina baita traineru bat Errobin ikusten ditugu..

Bikromiako sorkuntza horren bidez, artistak Baiona bere bestak hartzeko den xingola magikoa oroitarazi nahi izan du.

Baiona Hiriko prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - [presse@bayonne.fr](mailto:presse@bayonne.fr)